



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko urtarrilaren 25ekoa. Horren bidez, amaiera ematen zaio kontrolik gabe noraezean dabiltzan animaliek eragiten dituzten eragozpen eta kalteak direla-eta pertsona batek egindako erreklamazioari.

Aurrekariak

- Pertsona batek adierazi digu aske dauden animalia batzuek eragozpenak eta kalteak eragiten dizkiotela. Animalia horiek aldameneko abereen ustiapenetik datoz eta, batzuetan, bere jabetzan sartzen dira, Abaltzisketako udalerrian.
- Erreklamazioan azaldu digu egoera hau hainbatetan salatu duela Abaltzisketako Udalaren aurrean. Udal administrazio horrek izapideak egin ditu animalia horien jabeak aurkitzeko. Hala ere, arazoa ez da konpondu eta, gainera, bere horretan dirau periodikoki. Hori dela eta, erreklamatzailleak esan du udalak beste neurri batzuk hartu behar dituela, animaliak udalerrian kontrolik gabe ibil daitezen modu eraginkorrean saihesteko.
- Arazoa konpontzen saiatzeko udalak egin dituen jardueren artean, tartean dauden alderdiekin (eragindakoa, animalien jabea eta udala) egindako bilerak daude. Bileretako batean adostu zen animalien jabeek neurriak hartu behar zituztela animaliak beren jabetzako mugetatik ez ateratzeko. Gainera, udalak bi alderdiei gogorarazi zien aske eta abandonatuta dauden animaliak hartzeko eta zaintzeko eskumena duela. Udalak izapide horiek egin arren, erreklamatzailleak berriro adierazi du animaliak abandonatzearen arazoa berriro gertatu dela.
- Erreklamazio hori ikusirik, erakunde honek idazki bat bidali zion erreklamatzaileri -eta Abaltzisketako Udalari ere helarazi zion-. Bertan animaliak izateari buruzko araudiak biltzen dituen ezarpenei buruzko gogoeta batzuk adierazi genituen eta, baita udalerrian abandonatuta dauden edo aske dabiltzan animaliei dagokienez administrazioari eskatu behar zaion beharrezko kontrolari buruzkoak ere.
- Ondoren, erreklamatzailleak erakunde honetara jo du abandonatutako animalien gertaera berriak helarazteko; bere jabetzan sartu dira eta kalteak eragin dituzte. Udalak kasu horietan esku hartu du, baina animalien jabea





aurkitzen saiatu baino ez da egin. Alde horretatik, erreklamatzailleak berriro adierazi du eskumena duten administrazioek gertakari horien aurrean araututako esku-hartze praktiko bat ezarri behar dutela.

Aurrekariak ikusita, egoki iritzi diogu erreklamazioaren arrazoiaren gainean egindako udal jardunarekin lotutako hainbat ondorio helarazteari:

Gogoetak

1. Hasteko, aipatu behar dugu Eusko Legebiltzarraren animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, jabeak edo edukitzaileak higiene eta osasun egoera onean zaindu behar dituela bere animaliak, udal erroldan inskribatu behar dituela eta behar bezala identifikatu behar dituela. Gainera, bereziki aipatzen du animaliak abandonatzea debekatuta dagoela eta galduz gero, salatzeko betebeharra dagoela.

Horrez gain, aipatu behar da abeltzaintzan erabiltzeko animaliak edukitzeko, Eusko Jaurlaritzak abereen ustiapenearako egindako araudiak ezartzen dituen eskakizun teknikoak bete behar direla, hau da, higiene eta osasunekoak, eta ingurumenekoak. (515/2009 Dekretua, irailaren 22koa).

2. 6/1993 Legeak udalaren eskumena jasotzen du animalien jabeek edo edukitzaileek dituzten betebeharrak betetzen ote diren kontrolatzeari eta ikuskatzeari dagokionez.

Lege horren 14. artikulua, jabeek edo edukitzaileek animaliak abandonatzea debekatu du. Abandonatutako animaliak, pertsonarik gabe eta identifikaziorik gabe dabilzan animaliak dira, edo identifikatuta egon arren, bere arduradunak galdu dela salatu ez badu.

Kasu horietan esku hartzeko modua 15. artikulua zehazten du: *"Udal eta Foru Aldundietako sail eskudunei dagokie, abandonatuta dauden animaliak edo, identifikazioa izan arren, aske eta edukitzaileen kontrolik gabe noraezean dabilzan animaliak jasotzea, eta berreskuratzen, ematen edo hiltzen dituzten arte atxikitzea"*.

Ondorioz, udal administrazioak, dagokion foru zerbitzuaren koordinazioarekin, kontrolik gabe udalerritik noraezean dabilzan animaliak





ikustean, esku hartu behar du, modu egokian ukuluratzeko, animalia-aren arduradunak berreskuratzen dituen arte.

3. Gai honi dagokionez, beharrezkoa da Abaltzisketako Udalak onartutako animaliak babesteari eta edukitzeari buruzko udal ordenantza aipatzea (2006ko otsailaren 27ko GAO-n argitaratua). Arau hori 2006ko martxotik egon da indarrean eta etxeko animaliak, animalia etxekotuak eta animalia basatiak udal-erri horretan itxian edukitzea arautzen du.

Alde batetik, ordenantzak ezartzen du identifikazioak animalien erroldaren bidezkoak izan behar duela eta, horrek, beste borondatezko datu batzuen artean, erantzukizun zibileko aseguruaren barne hartzen du.

Bestalde, ordenantzak animaliak abandonatzea edo kalean edo jendearentzat irekiak diren espazioetan aske edukitzea debekatzen du. Araudi horren arabera, animalia abandonatua da bere jatorria identifikatu gabe duena edo gizakirik gabe dabilena, galdu dela salatu gabe.

Kasu hauetan jarduteko prozedurak ezartzen du, salaketa egin ondoren edo bitarteko propioengatik jakinda, animaliak udal zerbitzuek jasoko dituzte, edo behar izanez gero, foru zerbitzuek, eta horretarako prestatutako lekuetara eramango dituzte.

Udal administrazioak horri dagokionez esku hartzeko betebeharra du. Animalia-aren jabeak animaliak edukitzeari buruzko araudiak ezartzen dituen betebeharrak urratzen baditu, administrazioak aldi bateko zigortzeko prozedura izapidetu beharko du.

Animaliek hirugarren pertsonari eragiten dizkieten kalteei dagokionez, animalia-aren jabeak duen erantzukizun zibilar buruzko araudia hartu behar da oinarri, lehen aipatutakoa. Jasandako kalteak lehen aipatutako udal zerbitzuen funtzionamenduari lotura zuzena eta esklusiboa badu, orduan bakarrik egin ahal izango da ondare erantzukizuneko erreklamazioa udalaren aurrean, baloratua izateko.





Kexak jasotzen dituen datuak eta egindako gogoeta juridikoak ikusirik, ondorio hauek adierazi behar ditugu:

Ondorioak

Udal administrazioak, dagokion foru zerbitzuaren koordinazioarekin, kontrolik gabe udalerritik noraezean dabilzan animaliak ikustean, esku hartu behar du, animalia identifikatzeko eta, behar izanez gero, modu egokian ukuluratzeko, animalia arduradunak berreskuratzen duen arte.

Animaliaren jabeak animaliak edukitzeari buruzko araudiak ezartzen dituen betebeharrak urratzen baditu, udalak aldi bateko zigortzeko prozedura izapidetu beharko du.

